· BERBETAN MANU KONDE ETA JOSE ANTONIO GONZALEZ ODOL EMAILEAK · GEHIGARRIA EUSKALTEGIETAN ARIGERA
· KIROLA FINALISTA EGUNA · KULTURA TRISKA DANTZA ELKARTEAREN JAIALDIA

# BARREN

ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2002ko ekainaren 7a/X. urtea/408. zkia




Manu Konde eta Jose Antonio Gonzalezek odol emaileen urrezko insignia jaso dute

# Odola kendu bizia emateko

dastatu ezazu

# osuren sukoidea



# Belaustegi Baserria

## JATETXEA

## Menu berezia

**Ekainaren 10etik 16ra arteko astean ospatzeko**

Etxeko aperitiboa

Ahate terrina laranjarekin

Erremolatxa eta antxoen entsalada

Ganba handiak plantxan

Belaustegi solomilloa Pedro Ximenez saltsan

4---etlaw¯--•

Txokolate zurizko tarta marakujarekin

Ardoa eta kafea 28,30 € (+bez)

Aste bukaeran 28,30 € (+bez) edaria aparte



## 3.urteurrena

egkerrak IzEidi

San Migel gaina • 20870 ELGOIBAR • Tel. 943 743 102 • Faxa 943 743 641





## **Japoniarren** lezioak

Japoniarrek inor baino finagoak izateko ospea dute arlo askotan. Ekonamian punta-puntako herrialdea da, bizi-kalitate maila altuenetakoa du munduan, beste inork ez bezala egiten dituzte grebak, hau da, lanari ordu gehiago eskainiz, teknologiarik aurreratuena dute, eta janzkeran zein orrazkeran, japoniarrak baino modernoagorik ez dago munduan. Futbol mundialaren antolakuntzan ere, japoniarrak `apartekoak' dira. Gauzak nola egin behar diren erakutsi nahi digute gainontzeko guztioi. Eta egia esatera, azal horiko gizon-emakume txikiengandik badugu zer ikasi. Badakizue Japongo mundialeko liburuan Espainiak hizki handiz idatziko omen duela bere izena. Hori cliote behintzat egunkariek. Eta hala ez bada ere, ez dio axola, errua, ziurrenik, ez da `gurea' izango (horrela mintzatzen dira Antena 3eko esatariak, `gu' erabilita). Errua, jakina, arbitroarena, eguraldiarena, zorte txarrarena edo "Manolo el del bombo"-rena izango da. Kontuak kontu, begira zein argiak diren japoniarrak: Jakin badakite euren herrialdea munduko beste muturrean dagoela, eta haraino bidaiatzea ez dagoela edozeinen esku. Horregatik, herrialde askok jarraitzailerik izango ez lituzketela aurreikusita, soldatapeko zaleak kontratu dituzte. Harrigarria, baina praktikoa. Langabezian zaudela? Tori, hainbeste orduko, eta ala! zoaz Espainiako selekzioa animatzera edo brasildarren alde garrasi egitera. Ideia bikaina! Baina, Aznar jauna, nora begira zaude? Japoniarrak bezain argia izango bazina, honezkero konturatuko zinateke sistema hori dela langabeziarekin amaitzeko aproposa, eta ez desenpleguaren babeserako lege berri hori, demonio!

Japoniarrak, beti bezala, lezioak emanez.

Ainhoa Lodoso

C-1) (1.) O O Z .

## Emakumeak armadan

Gerra egitea gizonen kontua izan da historikoki eta hala berretsi du Britaniar armadak. Ikerketa bat egin ostean batailako lehen lerrotan borrokatzea debekatu die emakumeei. Arrazoiak: Soldaduek nagusien aginduak behar bezala betetzeko arazoak izan ditzaketela tartean emakumeak daudenean. Ikerketa egin duten ofizial britaniarrek atera dituzten ondorioen arabera, soldaduen portaera guztiz ezberdina izango litzateke borrokarako garaian. Emakume zaurituak zainduko lituzkete eta bertan lagatzeko aginduei entzungor egin. Oro har, "beste sexuarekiko jarrerak gizonen borrokarako efikazia murriztuko luke"

Hara non, Britaniar armadarentzat albiste txarra dena, ezin hobea iruditzen zaidan niri. Zer hoberik bakearentzat aurrez aurre duen etsaiari tiro eman beharrean, bere alboan duen emakumeari begirik kentzen ez dion soldadua baino. Ejertzitoak apurtu eta bakea nahi badugu, sar ditzagun bada emakumeak ejertzitoan, eta barra-barra.

**"Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna guztion artean lortu beharreko borroka da"**

Tamalez, emakumeek gaur egun armadaren aktibitateetako %70ean parte hartzeko gai direla gaineratzen du ikerketak. Hegazkinak pilotatzen dituzte edo gerra barkuetan lan egin, besteak beste. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna guztion artean lortu beharreko borroka da. Kasu honetan, ordea, gizonek elkar hiltzeko duten grina berdindu nahi izatea akats larria iruditzen zait. Soldadu guztiak aztoratzeko bakarrik lagako nieke emakumeei armadan sartzen.

Asier Orbea

en dute. Kolubora

lir"--

Kexak 5
MOTZ I\ OtZ ........................................................ 6
gehigarria ........................................
kiROlAk ........................................
aGencia ........................................ 24

## EKAINAK 15

Hainbat leku ezagutu ondoren, niretzat erosoenak aniztasunez beteak daudenak dira, mila kolore, ideia, fede eta bizimodu dauden herrietan sentitu izan naiz erosoen. Herri baten aberastasuna, aniztasunean datzalako. Baina, berriz agertu zaizkigu betikoak, egia bakar eta absolutuak inposatu nahiean, hauentzat ez dago berea baino bizimodu, pentsamolde eta alderdi onargarriagorik.

Egia absolutua euren poltsikoetan dutenez, gainontzekoei nola bizi eta nola pentsatu erakutsi nahi digute baina oker dabiltza, ez dute inolaz ere lortuko. Gure herria menperatzen makina bat aldiz saiatu dira, Francoren eskutik iragan gertuenean eta PP-ren eskutik gaur egun, baina oraindik ez da jaio helburu hori lortuko duenik. Herri honek bere kabuz pentsatzen eta erabakitzen du, joan den urteko maiatzaren I3an agerian geratu zen bezala. Modu horretan hain zuzen ere, erantzun behar diegu orain, ideien ilegalizazioa proposatu duten hauei.

Erantzuna emateko aukera paregabea suertatu zaigu, ekainaren 15ean, zentzugabeko alderdien lege honen aurka gaudelako eta gustokoak izan edo ez, bakoitzak bere ideiak izateko eskubidearen alde gaudelako. Baina hala ere, gogoratu, eskubide hau guztiona dela, ea behingoz lortzen den, herri honetako norbanako bakoitzak bere ideiak aurrera eramateko aukera izan dezan, gainontzekoenak errespetatuz eta inolako inposaketarik gabe. Herri honen aberastasunaren alde eta ideia desberdinak demokratikoki defendatzearen alde gaudelako, ekainaren 15ean, Bilbon ikusiko dugu elkar.

**Imanol Santos Urain**
N.A.N. 15392434-Y

## CUSCOTIK MILA ESKER

Jainkoari eskerrak eta Hezkuntza Komunitateko Administrazioak, Sipascanchako komunitateak, jendearen laguntza eta batez ere, Gemmari esker, gure proiektuaren helburu garrantzitsuenetariko bat lortu dugu: Negutegi bat eraiki eta etorkizunean elikagaiak ekoiztuz, 230 haurri jaten ematea lortuko dugu. Eskerrik asko Gemma, eskerrik asko elgoibartarroi gutaz gogoratzeagatik. Bihotz-bihotzez eskertzen dugu Gemma Agirregomezkortak eginiko lan guztia. Gure benetako laguna, ume txiroen ahizpa maitagarria, onena opa dizugu, eta gure artera lehen bailehen itzuli zaitezen espero dugu. Elgoibar negutegian hazten den adar bakoitzarekin gogoratuko zaitugu. Bertako berotasuna, zuk ekarritako berotasuna izango da, eta berak elikatuko ditu hainbeste maite dituzun umeak.

Atzo umeengatik egin genuen, gaur ere bai, bihar eta beti beraiengatik izango da, eta horixe da batera lanean jarraitzeko daukagun arrazoia.

**Pavela Giuliana Jimenez Figueroa**
Sipas Witiay "Cristo de los Andes"
haurren aldeko proiektuko administraria

# Urruzunoren begi ezkutua

## Alfa eta Beta



Alfa eta Beta. Zu eta Bera. Norabide ezberdineko bi gezi, bakoitza bere ibilbideari jarraiki, abiada propioan, momentu propioan. Zeru urdinak zeharkatuz... gau ilunak... negu gorriak... bakarra eta berezia den helmugaren bila, bata bestearen bila. Alfa eta Beta, Zu eta Bera. Norabide ezberdineko bi gezi, geltoki bila diharduten bi gezi... "inor ez bezala maiteko zaitudalako" deritzon oasiaren bila. Desiratutako topagunea. Posible ote? Zer diozu? Hori ote bidai honen bukaera? Bukaera? Akaso hasiera? Nork daki... auskalo... Agian Zuk. Bai, Zuk eta Berak, Alfak eta Betak.

**Eguzkitle Aranbarri**

ASTEKARIA

BaRRen

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
cr 943 74 41 12
Publizitatea:
rr 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maita:
barren@topagunea.com
Helbide informalikoa:
www.topagunea.com/barren
ARWTAPAT7_41LEA
Elgorbarlm Izarra

**LAOLEMULEA** Elgoibarko Udala KAzaraimak Irati Agirreazaldegi, AsiererbeaNnhoaAndonegi **PURUZITATEA** Amala Erkizia - MakErartutc4 Iker Diego **ADNINISTRAMOA** Amaie Podrigez **GEFIENTEA** Jon Peli Uriguen **KOLABORATIAILEAK** Jasone Oscry, Ainhca lodoso, Nestor Fuente, Pello Mandizabar, Juan M. ElusIondo, Alberto Ansuategi, Edurne Eilbao, Golzon Arreta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Maninez, Mcntse ArregI, JuanIto Gerostiza,
Aintroa Andonegi, Kokoe K.E. eta Urruzuno LT.. **AZALEICO ESAERA** nwaaar,Gotzon Garateren Iturutik **IMPRIMAEGIA** Gertu Koop. E. **TIRACIA** 4.025 ale **LEGE GOROAILUA** 35-1.038/92 ISSN 1139-1855

gie BLGOINIKO IZARRA ROLTUR RL IIIIII

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jauriarirzako Kultura Sailak eta Font Aldundiak diruz lagundutako aklizkarta.*

kutxa

di) DA NOBAT AIAGUINIE xEnn.irx,

9.[1]) GOITI GRUPO PANOBAT

FITARTA

'IMENek ez du bere gdn botee RITZIA eto ESK1JTITZAK oWelen oderazecroer eromzlzen 1 Esim-rzeol

## I4’X1111,11

• Barren-eko 404. alean herritar baten kexa irakurri genuen. Bere ustez **gizon batek hiru ahatekume lapurtu omen zituen.** Gizon honen erantzuna jaso dugu aste honetan. Esan digunez, **euri jasa handien poderioz,** errekako ura indar handiz zetorren, eta **12 ahatekume itotzen ari ziren.** Sigman zegoen andamiotik errekara jaitsi, eta Iau ahatekume eraman zituen etxera. Bat hurrengo egunean hil omen zen, baina beste hirurak hilabete pasa inkubadora inprobisatu batean eduki zituen, janaria eta ura emanez. **Erabat sendatu zirenean errekara bueltatu zituen.** Kexa idatzi zuenari bi gauza eskatu nahi dizkio: Alde batetik, barkamena eskatzea, eta bestetik esaldi hau gogora dezala: Ikusten dena ez da beti dirudiena.



**Aparkatekuak direla-eta,** gazte batek honako kexa adierazi nahi du: Gauez, poteo orduetan eta larunbatetan edozein tokitan aparkatu daiteke, eta ez dute multarik jartzen. "ezin ditugu 100 libreta hartu eta denei multak jarri" esaten omen dute udaltzainek. Gazte honek **multa jartzeko orduan kriterioak bateratzeko eskatzen du.**



## TXALOAK

• **Eskola kiroletako sariak eman zituztenak** txalotu nahi ditu gazte batek. Beste batzuk ordea, beren kexa azaldu nahi dute: **Bertan banatu zituzten kamisetak batzuentzat txikiegiak eta beste batzuentzat handiegiak** zirela adierazi digute. Hurrengoan kontu gehiago izan dezatela eskatzen dute.

• **55 urtekoen ospakizunean** parte hartu zutenek, **Mila, Marisa, Lucio eta Migeli eskerrak** eman nahi dizkiete egun ona pasatu zutelako.




Atal honetan kexa, txalo edo galdera argitaratzeko bidali posta elektronikoa, izena eta zure telefono zenbakia zehaztuz, harren@topagunea.com, helbidera.

2002-VI-7

## 28 odol emaile omenduko dituzte

Debarroko Odol Emaileen Elkarteak 28 odol emaile elgoibartar omenduko ditu datorren hilaren 16an Arraten. Borondatez hainbat urtetan odola ematen duten herritarrak saritzea da omenaldi honen helbutua. 50 alditiki, gora odola eman dutenek urrezko insignia jasoko dute eta zilatTezkoa 25 alditik gora donatzera joan direnek. Hona hemen insigniak jasoko dituzten elgoibartarrak:
Urrezko insignia:
Manu Konde, Jose Antonio Gonzalez
Zilarrezko insignia:
Jose Ignacio Gil, Jesus Aduriz, Nieves Cid,Juan Antonio Palominci, Jon Arrieta,Manuela Castro, Manoli Rosa, M. Jose Ubiria, Roberto Zubiaurre, Urbano Lopez, Celso Babarro, Anton Bergara, Lorenzo Mendikute, M. Jesus Badiola, M. Angeles Cardaba, M. Dolores Lozares, Jose Martin Galarza, Migel Etxeberria, M. Luisa Mugerza, Julia Avila, M. Carmen Azkue, Gillermo Gareia, Kepa Zubizarreta, Manuel Astrain, Luis Perez, Angelita Sanchez

## Liburutegi birtuala jarri du IMHk

Makina Erremintaren Institutuak Liburutegi birtual zerbitzua jarri du martxan. Bertan ikasleek eta irakasleek materiala bila dezakete internet bidez, horretarako aurrez emandako kodea sartuz. IMHko liburutegi teknikoan interesatutako enpresentzat ere zabalduko da liburutegia zuzenean liburuaren aurkibidea ikusteko. Bestalde, IMHko Heziketa Zikloetako ikasleek datorren ikasturtean posta elektroniko bidez jaso ahal izango dituzte azterketen notak. Honetaz gain, ikasle eta irakasleek on-line foro bat erabili ahal izango dute galderak egiteko zein apunteak eta ariketak jaso eta bidaltzeko.

# Kiroldegiko kantxa jendez gainezka egon zen babes ofizialeko etxebizitzen zozketan

### Etxebizitzen prezioak 57.400 euro eta 86.130 euro artekoak izango dira



*595 eskari onartu zituzten baina 120 etxe zozketatu.*

Joan den asteazkenean, hilaren 5ean, babes ofizialeko 120 etxebizitza zozketatu zituzten. Kiroldegian izan zen zozketa eta kantxako gradak jendez gainezka izan ziren. Guztiak gogoz eta urduritasunez, beraien izena noiz entzungo zai. Zozketa ordenagailu sistema baten bidez egin zen baina osagarri moduan betiko bolatxoen sistema ere erabili zuten. Lehenengo elbarrituentzako etxeen txanda izan zen, baina ez zen zozketaren beharrik egon. Izan ere, 6 etxe zeuden elbarrituentzat gordeak eta onartutako eskariak 5 izan ziren. Ondoren, guraso bakarreko 5 familiek beraientzako erreserbatutako etxe bakarra beraietako zeinentzat izango zen zai egon ziren. Kasu honetan, hain gutxi izanik, bolatxoen sistema baino ez zuten erabili.

**35 urtetik beherakoak**

Eskari kopuru altuena 35 urtetik beherako gazteen sailean zeuden, 463, hain zuzen ere. Baina beraientzat 84 etxe besterik ez zeuden gordeta. Ordenagailu bidezko zozketaren ostean, bakoitza bere izena pantailan noiz agertuko zai egon ziren. Zortedunak aurpegi alaiz eta besteak penaz, beraiei zegozkien etxebizitzen zozketa amaitu bezain laster Kiroldegitik atera ziren.

Orduan 29 etxebizitza geratu ziren zozketatzeko eta 122 ziren onartutako eskariak. Kasu honetan ere batzuk pozik eta besteak triste etxeak noiz eraikiko zai geratu ziren Kiroldegira gerturatutako gehienak. Etxebizitza txikienak 70 m2 izango ditu eta handienak, berriz, 90m2. Salneurriei dagokienez, 57.400 euro eta 86.130 euro artean eskuratuko dituzte jabeek etxeak.

**Etxebizitza kontseilaria**

Eraikuntza enpresarekin izandako arazoak medio, oraindik 120 etxebizitza hauek eraikitzeko lanak hasi gabe daude, baina urtea amaitu baino lehen hastea espero dute. Javier Madrazo etxebizitza eta Gizarte Gaien Kontseilaria zozketa egunean Elgoibarren izan zen. Bere esanetan, "etxebizitza eskubidea ezezik beharra ere bada. Gazte askok hortik abiatuta egiten baitu bizitza proiektua". Madrazok berak esan zuenez, aurki Eibarren Babes ofizialeko beste etxe batzuk egingo dituzte eta elgoibartarrek izena emateko aukera edukiko dute. Asteazkeneko zozketan elgoibartarrez gain, Eibar, Mendaro eta Soraluzeko jendeak izan zuen babes ofizialeko 120 etxehizitzetako bat eskuratzeko aukera.



## Haleko lurrak ur beroz eta presio altuz garbitzeko makina ekarriko dute

Elgoibar, Mendaro, Deba, Soraluze, Mallabiko alkateak eta mankomunitateko gerentea elkartu eta Debabarreneko garbiketa hobetzeaz aritu ziren hizketan. Besteak beste, kartoi bilketa, gozoki denden arazoa eta txakurren kakak izan ziren landutako gaiak. Bileraren ostean Udal gehienek ur beroarekin dabilen presio altuko hidrogarbitzaile bana eskuratzeko erabakia hartu zuten. Makina honekin ugerrak eta zikinak kendu ahal izango dira lurretik. Izan ere, Elgoibarren, batez ere jaien ostean, lurrak garbitzeko eta desinfektatzeko behar handia izaten da. Kartoi bilketarako ere plan zehatzak egingo dira. Baina txakur kaken arazoa jabeen kolaboraziorik ezean ez dago konpontzerik.

## Sinadurak bildu dituzte euskal erakundeen ilegalizattaren aurka

Orain dela gutxi Segi eta Askatasuna taldeak ilegalizatu zituzten eta hauen aurkako ekimen judizial eta politikoak aurrera eraman. Batasuna alderdiaren aurka ere ekintza politikoak prestatzen ari dira. Euskal erakundeen ilegalizazioa dela-eta sinadurak bildu dituzte oinarrizko askatasun eta eskubideen aldeko agiriari atxikimendua emanez. Agiriaren bultzatzaileen esanetan, "ekintza hauekin Estatuak Euskal Herriaren proiektuarekin betirako amaitu nahi du".




## E. Abetxuko eta M. J. Leiva Merkatu Plazako zozketaren irabazleak




Merkatu Plazako dendariek erosketak bertan egiten dituzten bezeroen artean hilero zozketatzen dute sariren bat. Oraingoan bi lagunentzako bi afari zozketatu dituzte. Eloisa Abetxukok eta Mari Jose Leivak, bakoitzak berak aukeratutako bikotearekin afalduko du Gabi jatetxean. Mari Josek ez zuen saria jasotzera joaterik izan eta bere ordez merkatu plazako dendari bat agertzen da Eloisarekin.

## Aurte 55 urte bete dituzten 73 elgoibartarrek ospakizuna izan zuten



1947an jaio eta aurten 55 urtera belduko diren elgoibartarrek ospakizuna izan zuten joan den larunbatean. 73 lagun elkartu eta bolatokiko parkean argazkia atera ostean, Sigmako jatetxera joan ziren bazkaltzera. Jatorduaren ostean musika eta dantzarik ez zuten falta izan bertaratutakoek. Esan digutenez oso egun polita pasa zuten eta herritarrez gain, kanpoan bizi diren elgoibartarrak ere etorri ziren ospakizunera. Hala nola Nafarroatik, Arabatik eta baita Galiziatik ere.

## agenc a

Ekainak 15, zapatua
11:00 -17:30
IKASTOLAREN EGUNA

# Eskolarteko Jokoetan, futbolean, Gipuzkoako txapeldun izan dira Elgoibar Ikastolako LH 6. eko mutilak

Elgoibar Ikastolako LH 6. mailako mutilak Gipuzkoako Eskolarteko Jokoetan futbolean txapeldunak izan dira. Finala, Donostiako Karmelo Balda Kiroldegian Laskorainen aurka jokatu zuten. Berdinketaren ostean, penaltietan irabazi zuten partidua elgoibartarrek.
Goian: Jose Ramon Oiarzabal (Entrenatzailea), Endika Etxaniz, Hasier Murua, Iriaki Etxaniz, Egoitz Ansola, Unai Cabo, Isaae Bilbatua, Iñigo Zubiaurre eta Aitor Aranzamendi.
Behean: Julen Salaberria, Iker Izeta, Patxi Larrea, Mikel Hidalgo, Ibai Oiarzabal, Mikel Arosa eta Asier Lizarralde.
Argazkian Iker Esnaola falta da.



# Guraso, haur eta irakasleek bat eginda ospatu zuten Gurasoen Eguna Pilar Ikastetxean



Pasa den maiatzaren 25ean Gurasoen eguna ospatu zuten Pilar Ikastetxean. Herritar gehienak Trinitate jaietan baziren ere jende ugari hurbildu zen eskolako patiora. Guraso, haur eta irakasleek giro onean igaro zuten eguna. Bingoan, futbolean, tarta lehiaketan... aritu ziren guztiak eta arratsaldeko 19:00etan amaitu zituzten ekintzak.

5. mailakoak golfean
Bestalde, joan den ostegunean Pilar Ikastetxeko 5. mailako ikasleak Andoainera joan ziren golf ikastaroa egitera. Ondoren, arratsaldean, Ondarretako hondartzan izan ziren. Ondo pasa zuten eta berriz itzultzeko gogoz geratu dira.

# Herri Eskolako Guraso Elkarteak sariak banatu dizkie ikasle mendizaleei

Ikasturtean hainbat asteburutan mendira irteerak egiten ibili ostean, joan den larunbatean egin zuten azken ibilaldia. Arbil mendira egin zuten azken buelta eta bertan Guraso Elkartekoek gaztetxoen ahalegina saritzeko irteeretan parte hartu duten ikasleei iparrorratz bana eman zien. Honela, aurrera ere mendian galdu gabe ibiltzeko aukera izango dute Herri Eskolako gaztetxoek.



**Manu Konde eta Jose Antonio Gonzalez:**

# "Osasunez ondo gauden artean jarraituko cugu odola ematen"

*Gipuzkoa Espainian goiko mailan dago odol dona-zioei dagoldenez. Hafa ere, badira hainbat data, udakoak esaterako, odol-bankuak eskasian izaten direna. Odola ezin dcziteke fabrikatu, baina badira gure herrian bi glzon odol fabrikak balira bezala lan egiten dutenak, beti ere borondatez. Izan ere, 50 alditik gora eman dute odola eta horregatik, urrezko insignia jaso dute. Beste 26 elgolbartar ere saritu dituzte gubdenez odola 25 aldiz emateagatik. Gu Manu Konde eta Jose Antonio Gonzalez odol emaileekin izan gara hizketan.*



Noiztik zarete odol emaileak?

Jose Antonio: Ni 1987 urtetik. Ordutik urtean 4 aldiz-edo ematen dut odola. Behin eskatu zidaten eta niri batere kostatzen ez zaidanez baietz esan nien eta badira 50 alditik gora odola eman dudala.

Zer dela eta egin zineten donante?

M: Aita odol emailea zen eta horretarako hezi ninduen ni ere. Niri inolako kalterik egingo ez zidala eta beste askoren onerako izan zitekeela pentsatuz hasi nintzen ni odola ematen 1975ean.

Hasi zinetenetik 50etik gora izan dira odola ematera joan zareten aldiak.

M: Urtean behin emango bagenu ez ginateke zifra horretara iritsiko, baina eskaria handitu egin zen eta urtean hiru edo lau aldiz ematera ere heldu gara. Hasieran urtean behin ematen zen, baina gogoan daukat herritar bati dialisia egin behar ziotela eta berarekin joan nintzen Bilbora. OdoIa besotik besora pasatzen zuten.

## "Abuztuan odol-hankuak hustu egiten dira"

Zein esanahi dauka zuentzat urrezko insignia jasotzeak?

M: Niretzat ez dauka esanahi berezirik insignia jasotzeak berak. Nire interes bakarra odol hori norbaitentzat baliagarria izatea da. Osasunez ondo nagoen artean jarraituko dut odola ematen eta 100 aldiz ematera heltzen banaiz hobe.

Odolaren beharra askotan azpimarratzen da. Gutxi al dago?

J.A: Bai, gehiago eskatzen baita. Esaterako, gero eta istripu gehiago izaten da eta zaurituek odol transfusioak behar dituztenean donanteon odola erabiltzen da. Abuztuan nabarmenagoa da behar hori, odol-bankuak hustu egiten baitira.

Zer egin beharko litzateke jendea odola ematera animatu dadin?

J.A: Hori norberaren erabakiz egiten da. Nik alaba behintzak konbentzitu dut odola ematera joateko. Badira beIdurrarengatik odola ematera ausartzen ez direnak ere.

M: Horiei esango nieke odola ematea ez dela beste munduko gauza bat eta gu prest gaudela odola ematera doazen lehen egunean beraiei laguntzera joateko.

Zein baldintza bete behar ditu odol emaile batek?

**J.M:** 18 eta 65 urte bitartekoa izatea eta gaixotasunik ez edukitzea, batez ere gaitz epatikoak. Bestalde arazo kardiobaskularrak dituztenek ere ez lukete odola eman behar.

Zuek beste odolik eman duenik ba aI da inor herrian?

M: Garai batean Ignacio Arrillaga medikuak odola behar zenean hainbat herritarri deitzen zien odol ateraldia egiteko, baina inongo kontrolik gabe. Baliteke haiek guk beste odol edo gehiago ematea. Baina gero, Odol Emaileen Elkartea sortu zenean odolaren kalitate kontrola egiten hasi ziren eta ordutik seguraski gu izan gara odol gehien eman dugunak.

Zertarako erabiltzen da odol hori?

M: Guk ez dakigu zein erabilera konkretu ematen zaion odol hoffi. Guk donazioa egin eta gero odol bankura eramaten dute eta gero ospitalen beharren arabera banatzen da.

J.A: Garai batean baziren odola saltzen zutenak eta horiek bazekiten zertarako erabiltzen zen edo nora zihoan beraien odola. Guk ez dakigu gure odola zeini ematen dioten, baliteke gure etsairik handienari ematea, baina...

## EAEko gotzainen pastoralak makina bat hauts harrotu ditu

# Bat al zatoz gotainek esaten dutenarekin?



### JUL[ ARREGI

**42 urte, komertziala**

Soluzivak lortzeko balio badu ondo ikusten dot. Apaizak nahiko epel agertu dira, baina espainolak sutan jarri dira asunto honekin. Pastoralak jaso dituen kritikak lekuz kanpo daudela iruditzen zait.



### HABIER GOROSTIZA

**62 urte, ileapaintzailea**

Ados nao bertan esaten dabenakin. Legiak partidu guztiekin kontsultatu gabe jarri ditxuzte, Partidu Sozialistak eta PPk. Nahi dabena egin dabe, eta hortik dator arazo guztia.



### ROSA AZKARRETA

**44 urte, administraria**

Ondo iruditzen zait. Denon artean hitz egiten badugu, gauzak hobeto joango dira. Egin zaizkion kritikak gaizki ikusten ditut.



### UNAI LEIARISTI

**27 urte, peoia**

Printzipioz ondo iruditzen zait. Eurek nahi dabelako ezin dabe, besterik gabe, partidu bat kendu. Hori euren ideia bat da, baina horrek papeleo bat eukiko dau. Kritika guztiak lekuz kanpo daozela uste dot.



### HECTOR GARRIDO

**27 urte, administraria**

Gotzain edo apaizei batzuetan kaso egiten zaie eta beste batzuetan ez. Ez dut ulertzen oraingo honetan zergatik ez zaien egin. Hartzen duten posturaren arabera izaten da hori.



### ESTHER ALONSO

**26 urte, psikologoa**

Elizak gutxien hitz, egin behar duenean hitz egiten duela iruditzen zait. Kasu honetan hitzegin du, baina nire ustez beste kasu askotan ere hitz egin beharko luke, bestela Elizak ez du ezertarako balio.

IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!
IZENA EMATEAN ‘Voi OEKO BEHERAPENA
o T4 adtelt O 1t 4 16 cotetelept,
Tel: 943 74 10 11

2002-VI-7

# nola ALDATU diren gauzak!



**1963.** urtekoa da hemen daukagun argazkia. Barrutia jatetxe eta hotela izandakoa ikus ditzakegu bertan. Garai hartan jatetxe ospetsua zen herrian, eta bezero asko zituen. Kanpotik ere jende asko etortzen zen bertara. Bezero garrantzitsuak elkartzen ziren bertan, biajante asko etortzen ziren, eta oso ondo jantzitako atzerritarrak. Toki lasaia zen, eta taberna bezala oso atsegina. Argazkian ikusten den moduan, kotxe gutxi zegoen garai hartan Elgoibarren.



**2002.** urteko argazki honetan ikusten dugunez, gauzak asko aldatu dira paraje honetan. Bertan dagoen etxebizitza, garai hartakoa baino altuagoa da. Barrutia jatetxea 1976.urtean itxi zen, eta bere lekuan, Banco Santander Central Hispano dago orain. Urteak pasatu diren heinean, kotxeak asko ugaritu dira Elgoibarren, eta taxi geltokia ere, bertan dago. Gaur egun, mugimendu handiko gunea dugu hau, merkatu plaza bertan dagoelarik, jende asko biltzen da ingurune hontan.



*ESKERTZA*

*2002ko maiatzaren 30ean, 93 urte zituela hil zen*
*MAXIMA ARIZMENDIARRIETA LANDAren sendiak,*
*bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,*
*hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



# MAIATZA

2002-VI-7

## JAIOTAKOAK

APIRILA



Paula Hernando
Mugerza
Apirilak 24
Javier eta Esther

MAIATZA



Iker Etxeherria
Fulgencio
Maiatzak 5
Andoni eta Ismene



Agirregomezkorta
Maiatzak 11
Iker eta Onintza



Maria Perez Cabanzon
Maiatzak 7
Jose Manuel eta Delfina



Intza Toledano Gondra
Maiatzak 11
Oscar eta Monica



Iker Zubiaurre Iriondo
Maiatzak 5
Jon eta Patricia



Olatz Altzerreka
Odriozola
Maiatzak 7
Roberto eta Lourdes

June Beitia



Maialen Armendia
Gabilondo
Maiatzak 20
Xabier eta Maria Angeles

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu BARREN astekarira 943 74 41 12 telefonora edo bidali e-postaz barren@topagunea.com helbide elektronikora.

## }.1■11011.1

Angel Zubiaurre
76 urte. Maiatzak 7
Teresa Santiuste
75 urte. Maiatzak 10
Tere Larrañaga
70 urte. Maiatzak 14
Jose Vazquez
52 urte. Maiatzak 10
Juana Garate
74 urte. Maiatzak 21
Antonio Rolo
76 urte. Maiatzak 22
Maxima Arizmendiarrieta
93 urte. Maiatzak 31


# ETXEBERRIA

1.1j% 1.41.

OSOA eta 24 ORDUKOA

*KUTXAK • TRASLADOAK •KOROAK*



NORBANAKOEI
eta KONPAINIEI
zuzenduriko
zerb itzuak.

Donostia eta
probintziako
erietxe zentroetan
ere bai.

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56
(Mobi]a) 608 77 07 01

# "ALFABETATZE TALDEETAN SARTZEAK MEREZI DU, KRISTON GIROA SORTZEN DA BERTAN ETA ASKO IKASTEN DA"

**M1LA ARANO**

Elgoibartarra da jaiotzez eta Galdakaon bizi den arren egunero etortzen da herrira lanera. Beti izan du euskararekiko ardura eta lehen etxean apenas hitz egiten bazuen ere, orain alabekin beti aritzen da euskaraz. Euskoltegian alfabetatze taldean aritua, bere esperientziaren berri eman digu Milak.

**Zergatik erabaki zenuen alfabetatzea?**
Danok egin beharko genuke holako zerbait. Hala ere, buruan dakagun argi hori pizten danian, momenturik onena da. Neria gure alabekin heldu zan.

Zer **esango zenioke euskaraz hitz egitearekin konformatzen denari?**
Errespetu guztia eurentzako, haiek alfabetatzeko aukera askorik ez dute izan, baina gaur egun aukera gehiago dago.

**Hizkuntza ikastea ez al da amaitzen?**
Inoiz ere ez, beti dago zeozer ikasteko. Beti zalantzan hauxe ondo jarri dot. Beste era batera jarri biot? Baina zalantza hoiek danok dauzkagu, adituenek ere.



**Zergatik animatzen da hain jende gutxi alfabetatze taldeetara?**
Euskaldun zahar gehienek pentsatzen dabe ez dabela behar, ez daukatelako inongo arazorik euskaraz bizitzeko. Ez dakit alferkeriagatik edo zergatik, baina jendeak paso egiten du. Meritu gehiena euskaldun berriek dute. Alfabetatze taideetan sartzeak merezi du, kriston giroa sortzen da eta asko ikasten da gainera.

**Zein etorkizun du euskarak ?**
Zail xamar ikusten dot, baina lortuko dogu gure hizkuntza lehenengo lerroan jartzen. Medio aldetik, ez digute errez jartzen, beti daukagu oztoporen bat, eta beti hor, "palestran".

**Afabetatu izanak zerbait aldatu al du zugan?**
Klaro baietz. Ziurtasunez gauzak egiteko, norbera hobeto egoteko... Nik beti esaten nion andereñoctri hau dela "asignatura pendientea" eta pentsatzen dot ez naizela bakarra. Denak animatzen ditut alfabetatzera baina ez obligazio bat bezala hartzeko, baizik eta gogoz ikasteko; benetan merezi du.

## PAR1SU MAISTREN



### Betiko euskaldunen kontuak ala euskaldunen betiko kontuak

Gure lagun Mari eta Lutxi elkartu dira :

M: Zihero haserretuta naon. Eguerdixan gure txikixa etorri jatan eskolako lan bat ein bihar zabala-ta. Hasi gaittun lanori eitten eta konturatu non ikeragarri kostatzen jatala euskeraz leitzia, eta idaztia zer esanik ez.

L: Egixa don, neu ere zoratu biharrian ibiltzen non BARREN ekin eta askotan ez jonat dana leitzen horretxeatik. Zeozer pentsau biharko jonau

M: Ba, gure aldamenekuak jardun jonan aspaldi eta esaten jian, orduan ikasittakua oso lagungarrixa izan zda beretzat. Geuk ere hasi biharko jonau. Bixok joango gaittun, zer beintxantzen jan?

L: Joan, baina nora? Non erctkusten jone, ba?

M: Bai neska, herrixan bi euskaltegi daonaz, bata Plaza Txikixan, AEK Euskaltegixa eta bestia azoka onduan, Udal Euskaltegixa.

Bai joan eingo gaittun jakitzera zelan dan. Bestela ere nahikua lan jaukanau, baina, euskaidunak izan eta euskeriakin arazuak izatia ere morkia don, gero! Guk ezeze, gure gizonak ere bajaukane premina edarral

**Amaia Larrarlaga**
AEK euskaltegiko irakaslea



# geloz g

AMARREKO TXIKIAN

## Jose ignacia

**Zerk bultzatuta hasi zinen euskara ikasten?** Orain Mendaron ari naiz lanean, eta han jende askok erabiltzen du euskara. Beraz, beraiekin hitz egiteko hasi nintzen euskara ikasten.
**Egia al da euskara ikastea hain zaila dela?** Bai, batez ere egiturak eta aditzak. Egiturak gaztelaniakoengandik oso ezberdinak dira.
**Eta euskaltegian lagun onak egiten direla?** Bai, baina kanpoan bizi naizenez klasetik kanpo ez daukat beraiekin harreman askorik.
**Euskaltegitik kanpo hitz egiten al duzu norbaitekin euskaraz?** Mendaroko botikarioa naiz eta bezeroekin egiten dut noizean behin euskaraz.
**Euskalduna izateko euskara jakin behar al da?** Euskalduna izateko Euskadin bizi behar da. Ez da derrigorrez euskara jakin behar, baina hitz eginez gero hobe.
**Egia al da euskararik gabe ez dagoela Euskal Herririk?** Bai, euskara garrantzitsua da Euskal Herriarentzat.
**Dakienak egiten ez badu, ez dakienak ikasiko al du?** Ez, euskaldunak euskaraz hitz egin behar dute ez dakitenek ikas dezaten.
**Euskaldunok baloratzen al dugu euskara ikasleon ahalegina?** Baietz uste dut. Jendeak nik euskaraz hitz egiteko esaten dit, akatsak egiteak ez duela axola.
**Zer esango zenieke euskara ez dakitenei?** Euskara ikastera animatzeko, euskadin biziz gero komenigarria da jakitea.
**Eta dakitenei?** Euskara gehiago erabiltzeko ikasten ari garenokin. Nire kasuan, hasieran euskaraz egiten zidaten, baina ondo hitz egiten ez dudala jakitean erdarara pasatzen dira.



Ikasleak, ezkerretik eskumara: Susano Gurrutxag nando Ferrero, Jose Ignacio Fernandez, Sandra ton eta Alberto Bergara. Falta dira: Txaro Etxeb eta Alex Mendiola.

**Ikasturtea bukatzear dago.**
### Bete al dituzu ikasturte hasieran jarritoko hel



**Fernando**
"Bai, piska bat aurreratu dut Ondo hasi ez banintzen ere denborarekin hobetu dut. Gai batzuk ez zaizkit erakargarriall iruditu, hala ere, datorren urtean seguraski larraituko dut".

## AURREKO LEHIAKETAKO ERANTZUNAK

9
1 M1KEL
2 OL ASO
3 O R I O
4 K OR T A
5 Z A P A T U Ai
6 MIÑOI
71( A I A
8 1 S O R G I NIAIKI

**EZKERRETIK ESKUMARA**
1. **Laboo abeslariaren izena,**
2. **Elgoibarko kanposantua.**
3. **1901eko maiatzaren 14an balea azaldu zen herria.**
4. **Oriotik Castrora joandako arrounlari eta patroia.**
5. **Larunbata Elgoibarren.**
6. Arabako **foru-polizia.**
7. **Portua esateko beste modu bat.**
8. **Zergatik da ezaguna Zugarramurdi?**

**GO1TIK BEHERA**
9. **Elgoibarko mendi baten eta mendizale** eikartearen;zena.



**IRABAZLEA**
**ANA VAZQUEZ FERNANDEZ da.**
Saria: Bi pertsonarentzat afaria
Toletxe tabernan

# elo



(irakaslea), Fer-
ledano, Emi An-
rria, Maite Tapia

GELR110 F1TXR

**Euskaltegict:**
Uclal Euskaltegia
**trakasiea:**
Susana Gurrutxaga
**Urratso:**
8. urratsa
**ikasie kopurua:**
8 lagun

**Batazbesteko adirta:**
34 urte
**Asteko klase orduak:**
7 ordu eta ercli
**(97 Bibcikera:**
Lou kanpotctr daude klase-
an: Muxikarra, eibartarra,
tolosarrct eta donostiarra

iritzi

**iuruak?**



**Alberto**
"Licti, ez naiz nahi beste alditan etorri ktasera eta ez ditut nire es-pektatiba guztiak bete, baina probetxuzkoa izan da ikasturtea. Gustatuko litzaidake datorren ur-tean jarrattzea euskara hobetze-ko eta tituluren bat ateratzeko.

**NOR da euskaraz ondoen hitz egi-ten duena?** eta Alberto.
**NORK egiten du esfortzurik han-diena euskaitegira etortzen?** Jose lanaciok, clenbora putxt cluelnko.
**NORI esango zeniokete euskara ikasteko? Euskal reletistan** aritu eta euskaraz oso ongi moldatzen ez direnei.
**NOREN apunteak lapurtuko zeni-tuzkete? I,ctrotenok,** denak koa-derno batean clitu-eta
**NON praktikatzen duzu gelan ika-sitakoa?** Etxean, kalean, lanean, iagun artean, bakoitzak bere ingu-ruaren arabera.
**NORA joango zinatekete gelakoe-kin asteburu bat pasatzera?** Neka-zal turtstnoko etxe edo barnetegi batera.
**NORENTZAT izaten dira irakaslea-ren bronkak?** Inorentzat ere ez.
**NOREKIN hitz egiten duzu euska-raz?** Klasean denekin.

## "IKUSI ETA IKASI" LEHIAKETA

Lehlaketan parin hartu nahi baduzu, gurutzegromo ondo egitea besterW ez daukozu. Horrela egin ostean,. moztu papera marro etenetik eta bidali honako helbidera ekainaren 30 baino lehen. Bi pertsonarentzat aforia irabaz dezakezu, Toletxe tabernan. Bidali erantzunak helbide honetara: Arigera proiektua. Ubitarte 4, behea 20870 Elgoibar, arigera@infonegocio.tom. Euskara ikasleok euskaltegietan ere entrega dezakezue.




EZKERRETIK ESKUMARA
1. Jasone Osororen azken liburua.
2. Paco Ibatiez kantariaren jaioterria.
3. Nolo esaten da Elgoiborren "nuen" aditza.
4. Zestoatik hurbil dagoen Debako kobazuloo.
5. Euskal Herria Aturri eta beste ze ibairen artean dago?
6. Eratsungo pilotari ohia.
7. La Pasionaria komunista bizkaitarren abizena.

GOITIK BEHERA
8. Maren diskoo egin duen soinujoleoren abizena.

Parte hartzen duzuenon artean
2 LAGUNENTZAKO APARIA zozketchko clugu1

# euskaltegietan oarrena

## NOTIZIAK

### KORRIKA AEK BEKA

Urtebete barru, 13. KORRIKA gure artean izango dugula-eta, Alfabetotze Euskalduntze Koordinakundeak "KORRIKA AEK" izeneko beka deialdia egin du. Proiektu honen helburua, euskarazko ikuskizunak bultzatzea da eta, bide batez, datorren urteko KORRIKA KULTURALEAN ikuskizun berria plazaratzea. Beka eskaera egiteko curriculumc: eta proiektuaren ezaugarriak aurkeztu beharko dira eta horretarako epea bukatzear dago. Interesaturik balego AEK euskaltegiak Ploza Txikian duen bulegora joan daiteke edo **943 74 13 32** telefonora deitu.

### EUSKAL MITOLOGIARI BURUZKO NITIALDIA UDAL EUSKALTEGIAREN ESKUTIK



Debabe Udal Euskoltegiak Kutxaren laguntzoz Euskal Mitologiart buruzko hitzaldia entzuteko aukera eskaini zuen atzo, ekainaren 6an, Kultur Etxean. Gerarta Iñaki Arotzena Otxotorena pedagogoa izan zen Euskal mitologiako pertsonaiak beste kulturetakoekin konparatu zituen, espiritualtasunari eta unibertsoari buruzko ondorioak ateraz. Tartalo, basajaun larniak jentilak, kixmi, iratxoak, olentzero... izan zituen beste hainbat pertsonaiaren artean mintzagai.

### UDAKO BARNETEG1AK

Uda gerturatu ahala asko izaten dira euskaltegian ikasitakoa praktikan jartzeko edo euskara hobetzeko asmoz barnetegietara jocrten direnak. Hori dela-eta, aurten ere Udalctk guntzak emango dizkie barnetegietara joango direnei.

- Barnetegiko gastua 600eurotik beherakoa denean, Udalak gastuaren %40' (180 euro gehienez} emango die langabetuei eta ikasleei.
